

<p> DONOSTIAKO PUIOKO KIROLANITZA ZELAIA USTIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO KONTRATUA, EMAKIDA BIDEZ, PROZEDURA IREKIAN ETA OHIKO TRAMITAZIOAREN ARABERA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKO ESPEZIFIKOEN AGIRIA </p>	<p> <u>PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS</u> <u>ESPECÍFICAS DEL CONTRATO DE</u> <u>PRESTACION DE GESTION DE SERVICIOS</u> <u>PUBLICOS, MEDIANTE CONCESION,</u> <u>PARA LA EXPLOTACION DEL CAMPO</u> <u>POLIVALENTE DE PUJO, DE DONOSTIA /</u> <u>SAN SEBASTIÁN POR PROCEDIMIENTO</u> <u>ABIERTO Y TRAMITACION ONDINARIA.</u> </p>
<p>1. KONTRATUAREN XEDEA</p>	<p>1. OBJETO DEL CONTRATO</p>
Kontratu honen xedea da Donostiako PUJOko udal kirolanitza zelaia kudeatzeko zerbitzua ematea.	Constituye el objeto del presente contrato la prestación del servicio de gestión del Campo municipal polivalente de PUJO de Donostia / San Sebastián.
<p>2. INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA</p>	<p>2. DESCRIPCIÓN DE LAS INSTALACIONES</p>
Honako kirol gune hauek dauzka PUJOko udal kirolanitza zelaiak:	El Campo municipal polivalente de PUJO cuenta con los siguientes espacios deportivos:
<ul style="list-style-type: none"> • Belar artifizialeko rugby / fútbol zelai bat, futbol-7an jokatzeko 2 zelaitan banatu daitekeena 	<ul style="list-style-type: none"> • 1 campo de hierba artificial rugby / fútbol y divisible en 2 campos de fútbol-7
<ul style="list-style-type: none"> • 4 aldagela eta hainbat komun. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 vestuarios y varios WC
<ul style="list-style-type: none"> • 3 biltegi 	<ul style="list-style-type: none"> • Tres almacenes.
<ul style="list-style-type: none"> • Arbitroentzat aldagela 	<ul style="list-style-type: none"> • Un vestuario para árbitros
<ul style="list-style-type: none"> • Taberna bat. 	<ul style="list-style-type: none"> • Un bar.
<ul style="list-style-type: none"> • 3 lokal 	<ul style="list-style-type: none"> • Tres locales
<ul style="list-style-type: none"> • Kirol anitza gela 	<ul style="list-style-type: none"> • Una sala polivalente
<ul style="list-style-type: none"> • botikina 	<ul style="list-style-type: none"> • Un botiquín
Gainera baditu ikusleentzako harmailak.	Además, cuenta con una grada para espectadores.
Honekin batera doaz deskribapen fitxa eta instalazioaren planoak.	Se adjuntan ficha descriptiva y planos de la instalación.

<u>3. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK</u>	<u>3. SERVICIOS A PRESTAR</u>
Dagokion kirol ekipamenduen erabilerarekin bat etorriz erabili ahal izateko eta dagozkion zerbitzu guztiak eskaini ahal izateko ezinbestekoak dituen bitarteko guztiak izango ditu kudeatzaleak. Horretarako, egin beharreko egokitzapen guztiak egingo ditu zelaian, bertan egiten diren kirol motei dagozkien entrenamendua eta partidak egin eta jokatu ahal izateko.	El gestor deberá disponer todos los medios necesarios para que la instalación pueda ser utilizada conforme a los usos de equipamiento deportivo a los que está destinada y se presten todos los servicios correspondientes. Para ello deberá realizar todas las adecuaciones necesarias en el campo para que se puedan desarrollar y jugar los diferentes partidos y entrenamientos de las modalidades deportivas del mismo.
Honako zerbitzu hauek eskainiko dira instalazio honetan:	Los servicios que se deberán ofertar en esta instalación serán los siguientes:
<ul style="list-style-type: none"> • Kirol guneen erabilera. • Kirol materiala edukitzeko biltegi edo kaiolen erabilera. • Kirol elkarteen kudeaketa lanetarako bulegoen erabilera. • Taberna-kafetegi zerbitzua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Utilización de los espacios deportivos. • Utilización de almacenes o jaulas de material deportivo. • Utilización de oficinas para gestiones de los clubes deportivos. • Servicio de bar-cafetería:
Adostutako jarraitutasunarekin emango du zerbitzua esleipendunak, eta partikularrei bermatu egingo die erabiltzeko eskubidea kontratu honetan finkatutako baldintzetan eta, hala behar duenean, dagokion diruzko ordaina ordainduta.	El adjudicatario deberá prestar el servicio con la continuidad convenida y garantizar a los particulares el derecho a utilizarlo en las condiciones que se establece en el presente contrato y mediante el abono, en su caso, de la contraprestación económica correspondiente.
<u>4. ORDUTEGIAK</u>	<u>4. HORARIOS</u>
Aurreikuspenen arabera, astean zehar arratsaldeko orduetan erabiliko da, eta asteburu eta jaiegunetan goizez eta arratsaldez. Hortaz, honako hauek dira, zerbitzua emateko aurreikusitako gutxienezko ordutegiak:	Se prevé una utilización entre semana de horario de tarde; y en fines de semana y festivos en horario de mañana y tarde, por lo que los horarios mínimos de apertura del servicio previstos son:
<u>4.1. Denboraldian zehar: abuztuaren 10etik hurrengo urteko ekainaren 10era arte:</u>	<u>4.1. Durante la temporada: 10 de agosto al 10 de junio del siguiente año:</u>
Astelehenetik ostiralera: 16:15etatik 22:45ak arte	De lunes a viernes: 16:15h – 22:45h
Larunbat, igande eta jaiegunetan:	Sábados, domingos y festivos:

9:00etatik 10:30ak arte	9:00h – 20:30h
(betiere gutxienez astebete lehenagotik baldin bidaude programatutako jarduerak edo erreserbak egiteko eskaerak).	(siempre que haya actividades programadas o solicitudes de reserva con una antelación mínima de una semana).
4.2. Urteko gainerakoan:	4.2. Resto del año:
Ixtxa egon liteke instalazioa, baina txapelketak egiteko eskaerak baldin bidaude esleipenduna behartuta egongo da ateaik irekitzera.	la instalación podrá permanecer cerrada, aunque el concesionario tendrá la obligación de abrir si existen solicitudes para torneos o campeonatos.
4.3. Nolanahi ere, instalazioa ixtxa egon daiteke urtarriaren 1ean eta 20an, abuztuaren 15ean eta abenduaren 25ean.	4.3. La instalación podrá permanecer cerrada en cualquier caso, los días 1 y 20 de enero, 15 de agosto y 25 de diciembre.
5. PREZIOAK	5. PRECIOS
5.1. 2015-2016 ekitaldian honako hauek izango dira instalazioko oinarritzko kirol zerbitzuak erabiltzeko prezioak (BEZA barne):	5.1. Los precios (iva incluido) de utilización de los servicios básicos deportivos de la instalación serán los siguientes para el año 2015-2016.
Federatutako taldeen entrenamenduak zelai erdia erabilita: 10,30€ Partida ofiziala zelai erdian : 13,91€ Partida ofiziala zelai osoan: 27,85€ Futbol eskolak eta erabilera pribatuak zelai erdia erabilita: 42,84€ Argi artifiziala erabiltzea zelai erdia erabiltzen denean 3,00 euro	Entrenamientos federados medio campo: 10,30€ Partido oficial medio campo: 13,91€ Partido oficial campo completo: 27,85€ Escuelas de fútbol y utilizaciones privadas (medio campo / F7): 42,84€ Uso de iluminación artificial por medio campo 3,00 euros
5.2. Esleipendunak finkatu ahal izango ditu gune osagarrien prezioak, baina ezin izango dira jarraian adierazten diren preziotik gorakoak izan:	5.2. Los precios de los espacios auxiliares los podrá fijar el adjudicatario y no podrán ser superiores a los siguientes:
• Biltegiak: urtean 50 € m2-ko	• Almacenes: 50€m2/año
• Lokalak / bulegoak: urtean 65 € m2-ko	• Locales / oficinas: 65€/m2/año
• Erabilera anitzeko aretoa (federatuek erabiltzeko): Zelaian entrenatzen duten taldeetarako, erreserbatuta dituzten orduetako kopurua	• Sala polivalente (uso federado): será gratuito para los equipos que entrenan en el campo, el número de horas que tienen reservadas, a partir de esas:

doakoa izango da, hortik aurrera: 13,60 € orduko.	• 13,60 € / hora
5.3. Aurreko bi ataletan adierazitako prezioen URTEKO berrikuspena erkidegoko ekainetik ekainerako urte arteko KPlaren arabera egingo da.	5.3. La revisión ANUAL de los precios señalados en los dos apartados anteriores, se hará de acuerdo al IPC, interanual autonómico de junio a junio.
6.1. KIROL GUNEAK ERABILTZEKO BALDINTZAK	6.1. CONDICIONES DE UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS DEPORTIVOS
<i>Oro har:</i>	<i>En general:</i>
Donostiako Kirolak erabakiko ditu, lehiaketa prozesu baten bidez, denboraldiko astelehenetik ostiralera arte, pertsona erabiltzaileen entrenamenduetarako futbol zelaiaaren erabilera eta erreserba.	La utilización y reserva del campo de fútbol para los entrenamientos de las diferentes personas usuarias de la temporada de lunes a viernes los determinará Donostia Kirola mediante Resolución, por medio de un proceso de concurrencia competitiva.
Esleipendunak kudeatuko ditu libre geratzen diren gainerako ordutegiak, partiden programazioa eta era guztietako ekitaldi bereziak. Nolanahi ere, asteburuetako programazioetan, zelaian entrenatzen duten taldeen partida oficiales lehenetsiko ditu.	El adjudicatario gestionará el resto de los horarios que queden libres así como la programación de partidos y de cualquier tipo de evento extraordinario. En cualquier caso, en la programación de los fines de semana, se dará primero respuesta a los partidos oficiales de los equipos que entran en el campo.
Esleipendunak edozein pertsonari utziko dio instalazio hauen baitara biltzen diren kirol gune guztiak erabiltzen, betiere kontratu honetan eta KUPen zerbitzuen Araudian finkatutako baldintzetan eta berdintasun, unibertsaltasun eta ez diskriminatzeko printzipioei jarraiki.	El adjudicatario deberá permitir la utilización de todos los espacios deportivos integrados en estas instalaciones a cualquier persona, en las condiciones establecidas en el presente contrato y en el Reglamento de servicios del PMD, de acuerdo con los principios de igualdad, universalidad y no discriminación.
<i>Eskola Kirolaren esparruan:</i>	<i>En el ámbito del Deporte Escolar:</i>
Esleipendunak dohainik utziko du futbol zelaia eskola kirolaren egitarauaren barruan parte hartzeko ibilbidean benjaminen edo/eta alebinen kategorietan programatutako partidak egiteko, eta gainera:	El adjudicatario deberá ceder el campo de fútbol de manera gratuita para los partidos programados dentro del programa de deporte escolar para la competición de categorías benjamín y/o alevín del itinerario de participación y además:
• Lagunza teknikoa emango du zelaian programatutako eskola kirolean parte hartzeko ibilbideko benjamín edo/eta	• Prestar asistencia técnica a las concentraciones de categoría benjamín y/o alevín del itinerario de participación de

alebinen kategorietako kontzentrazioetan, larunbatetan, goizez, 9:00etatik 14:00ak arte erreserbatutako zeliaaren esparruan.	deporte escolar que se programen en el campo, en el marco de la reserva de campo de los sábados por la mañana de 9:00 a 14:00 horas.
<ul style="list-style-type: none"> Instalazioetan garatzen diren eskola kirolean parte hartzeko ibilbideko jardueretan lagunza eskainiko du, koordinazio lanak egingo ditu eta, behar izanez gero, epailearena egingo du. Esleipendunak Gipuzkoan eskola kirolari buruz indarrean dagoen araudia eta Donostia Eskola Kirolaren urteko Jardueren Programa beteko ditu eta betearaziko ditu. Zehazki, kirol eskolei buruzko araudia beteko du esleipendunak, eta ikasturtean zehar ez du benjamín eta alebin kategorietako ikasleei zuzendutako kirol jarduerarik antolatuko larunbat goizetan, ikastetxeek Eskola Kirolaren Aholkularitza Kontseiluaren esparruan prestatutako era askotako kirol lehiaketen egutegiak bete daitezen, hori guzti hori tartean dagokion baimena ez badago. 	<ul style="list-style-type: none"> Colaborar en la asistencia, coordinación e incluso arbitrajes de las actividades de deporte escolar del itinerario de participación que se desarrollen en la instalación. El adjudicatario deberá respetar y hacer respetar la normativa vigente en Gipuzkoa sobre deporte escolar así como el Programa anual de Actividades de Deporte Escolar de Donostia / San Sebastián. En concreto, el adjudicatario respetará la normativa en materia de escuelas deportivas y no podrá organizar ninguna actividad deportiva dirigida a escolares de las categorías benjamín y alevín los sábados por la mañana durante el curso escolar, de forma que se respeten los calendarios polideportivos de competición elaborados por los centros escolares en el marco del Consejo Asesor de Deporte Escolar, todo ello salvo que medie la correspondiente autorización.
6.2. GUNE OSAGARRIAK ERABILTZEKO BALDINTZAK	6.2. CONDICIONES DE UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS AUXILIARES
KUPen berariazko baimena ez badago, planoetan eta plegu honetan adierazten diren helburuetarako baizik ez dira erabiliko nola kirol guneak hala gune osagarriak.	Tanto los espacios propiamente deportivos como los auxiliares deberán ser utilizados sólo y exclusivamente con el destino que se indican en los planos y en el presente pliego, salvo que medie autorización expresa del PMD.
Gune osagarriak instalazioaren erabiltzaile diren elkarteeik baizik ezin izango dituzte erabili.	Los espacios auxiliares podrán ser utilizados exclusivamente por los usuarios de la instalación.
6.2.1. Kirol materiala gordetzeko biltegiak eta kaiolak.	6.2.1. Almacenes y jaulas para material deportivo.
Kudeatzaileak zeliaaren erabiltzailee bermatu egingo die, hala eskatuz gero, biltegietan leku bat edukitzea kirol materiala gordetzeko, betiere eskaeren eta aipatu instalazioan dauzkaten entrenamendu edo erabilera orduen arabera.	El gestor garantizará que los usuarios del campo que así lo soliciten dispongan de un espacio en los correspondientes almacenes para guardar el material deportivo, en función de las solicitudes y del uso u horas de entrenamiento que tienen en dicha instalación.
6.2.2. Lokalak edo Bulegoak.	6.2.2. Locales u Oficinas.

Kudeatzaileak lokal edo bulego bat edukiko du instalazioaren kudeaketari lotutako lan administrativoak egiteko. Halakorik baldin badago, bermatu egingo du instalazioak erabiltzen dituzten elkartek, hala eskatuz gero, gainerako lokalak erabili ahal izatea aipatu erabilera-rekin lotutako tramiteak bideratzeko, lokalen erabilera orduen arabera banatz edo soilik elkartek erabiltzeko, betiere eskaeren eta aipatu instalazioan dauzkaten entrenamendu edo erabilera orduen arabera.	El gestor dispondrá de un local u oficina para los usos administrativos asociados a la gestión de la instalación. Garantizará en caso de que existan, que el resto de locales puedan ser utilizados por parte de los clubes usuarios de las instalación que así lo soliciten, para los trámites relacionados con dicho uso, bien compartiendo el mismo mediante el reparto de horas o en exclusiva, en función de las solicitudes y del uso u horas de entrenamiento que tienen en dicha instalación.
6.2.3. Kirol anitza gela	6.2.3. Sala polivalente
Kirol anitza gelaren erabilera lehentasuna edukiko dute zerlaia entrenatzeko erabiltzen duten taldeak, entrenatzen duten egun eta ordutegien arabehera; hala ere, KUPek erabakiko du eztabaidea edo/eta gaizki ulertzearik gertatzen bada.	La sala polivalente será usada prioritariamente como sala de entrenamiento auxiliar al campo polivalente, por los integrantes de los equipos que entrenen en dicho campo, conforme al uso y horarios de entrenamiento que tienen en dicha instalación, correspondiendo en cualquier caso al PMD la facultad de regular dicho uso, en caso de no acuerdo.
6.2.4. Taberna-Kafetegia	6.2.4. Bar cafetería
Taberna-Kafetegia zelaiaren erabilera osagarria da. Hortaz, indarrean dagoen araudiaren araberakoa izango da taberna-kafetegia erabiltzeko erregimena.	El bar cafetería es un uso auxiliar al campo por lo que el régimen de uso del mismo deberá acogerse a la normativa en vigor correspondiente.
7. INFORMAZIOA	7. INFORMACIÓN
Pertsona orok. instalazioaren funtzionamenduari buruzko informazio guztia edukitzea bermatuko du esleipendunak. Zentzu horretan, ongi ikusteko moduko lekuaren, iristen erraza den lekuaren, honako hauek adieraziko dituen panela jarriko du:	El adjudicatario garantizará que toda persona disponga de toda la información pertinente sobre el funcionamiento de la instalación. En este sentido, habrá de colocar en un lugar visible y de fácil acceso un panel en el que se indique:
• indarrean dauden tarifak	• las tarifas vigentes
• instalazioa irekita dagoen ordutegia	• el horario en el que la instalación permanece abierta
• instalazioaren izena	• el nombre de la instalación
• elkarteko kudeatzailearen izena	• el nombre de la entidad gestora
• Indarrean dagoen legeriak bete	• Las que sean de obligado cumplimiento

beharrezkotzat dituen guztiak (futbol araudia, segurtasuna, desfibrilagailuak, etab....)	por legislación vigente (reglamento de fútbol, seguridad, desfibrilador, etc...)
8. ZERBITZUAREN PUBLIZITATEA ETA IRUDIA	8. PUBLICIDAD E IMAGEN DEL SERVICIO
Honako betebehar hauek ditu elkarteko kudeatzaileak:	La entidad gestora queda obligada a:
8.1. KUPek aurrez eta berariazko baimena ematen ez badu, ez diu instalazioaren izena eta kanpo nahiz barne irudia erabiliko publizitate arrazoik tarteko edo elkartekoak izan ditzakeen beste interes batzuk tarteko.	8.1. No utilizar el nombre, ni la imagen externa o interna de la instalación con motivos publicitarios o por cualesquiera otros de interés exclusivo de la entidad, excepto que medie autorización expresa previa del PMD .
8.2. Instalazioetako jarduerak edo zerbitzuak ezagutarazteko edozein lekutan, agerian agertuko dira haren titularitate publikoa eta KUPen logotipoa. Zehazki honako izen hau erabiliko du beti esleipendunak: PUJOko UDAL KIROLANITZA ZELAIA / CAMPO POLIVALENTE MUNICIPAL DE PUJO".	8.2. En cualquier difusión de las actividades o servicios de la instalación, habrá de hacerse constar la titularidad pública de la misma, así como el logotipo del PMD. En concreto, el adjudicatario deberá utilizar siempre la denominación "PUJOko UDAL KIROLANITZA ZELAIA / CAMPO POLIVALENTE MUNICIPAL DE PUJO".
8.3. Sarrerako errotonuan instalazioaren izena agertuko da beti. Hala behar badu, KUPek jarriko du.	8.3. Se deberá respetar el rótulo de la entrada con el nombre de la instalación que en su caso sea colocado por el PMD.
8.4. Publizitateari emandako perimetroko espazioetan leku onenetako batean jarriko da gutxienez 4 m x 1 m-ko errotonu bat Donostia Kirolaren publizitate instituzionalarekin , Donostia Kirolako zerbitzu teknikoek emango duten diseinuan jarraiki.	8.4. En los espacios perimetrales dedicados a la publicidad deberán colocar en un lugar preferente un rótulo de unas dimensiones mínimas de 4m x 1m con publicidad institucional de Donostia Kirola , y de acuerdo al diseño que facilitarán los servicios técnicos de Donostia Kirola.
9. INSTALAZIOEN EGOERA	9. ESTADO DE LAS INSTALACIONES
9.1. Esleipendunak dagozkion erabilera tarako baldintza egokietan edukiko du instalazioa.	9.1. El adjudicatario deberá disponer la instalación en las condiciones adecuadas para los usos a los que está destinada la misma.
9.2. Hornidurak	9.2. Suministros
Horretarako bera arduratuko da eta bere gain hartuko du beharrekoak diren hornidura guztien kostua: ura, gasa, argindarra...	Se encargará de que se proporcionen y asumirá el coste de todos los suministros necesarios: agua, gas, electricidad, para dar el servicio en las condiciones establecidas.
9.3. Mantenimenduen	9.3. Operaciones de mantenimiento:

<p>Mantentze eta kontserbazio egoera bikainean edukiko du instalazioa, garbi eta txukun, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak jarriko ditu. Xede horretan, instalazioa egoki mantentzeko Plan bat eduki eta aplikatuko du eta Plan horrek gutxienez honako hauek mantentzea aurreikusiko du: belar artifiziala, kanpoko berdegune osagarriak, sareak, burdineria, pintura, desfibrilagailua, igogailuak, suak itzaltzeko gailuak, estalkiak, bizitza-lerroak, instalazio termikoa, iturgintza, saneamendua, ureztatzeko sarea, argiteria eta instalazio elektrikoa. Eta gainera garbitze lana eta izurriteak kontrolpean edukitzeko lanaz arduratuko da.</p>	<p>Deberá mantener en perfectas condiciones de mantenimiento y conservación así como de limpieza la instalación, para lo que deberá aportar todos los recursos necesarios. Para ello, deberá disponer e implementar un Plan de mantenimiento que como mínimo contemple el mantenimiento de los siguientes elementos y equipos: hierba artificial, zonas verdes exteriores complementarias, redes, herrería, pintura, desfibrilador, montapersonas, medios de extinción de incendios, cubiertas, líneas de vida, instalación térmica, fontanería, saneamiento, red de riego, iluminación e instalación eléctrica, así como de limpieza, y de control de plagas.</p>
<p>Belar artifizialaren eta estalkien kasuetan izan ezik, erabateko bermearen modalitatean ulertuko da mantentze lana. Horrenbestez, konponketa eta mantentzeko lan guztiez gain, kontratuak indarrean dirauen bitartean ordezkatu edo berri beharrekoak ordezkatzeko edo berritzeko beharrezkoak diren inbertsioak egingo ditu esleipendunak, behin kontratua amaitutakoan instalazioa egoera bikainean itzul dezan.</p>	<p>Salvo en el caso de la hierba artificial y las cubiertas, se entenderá el mantenimiento en la modalidad de garantía total, de tal forma que estén incluidas además de todas las reparaciones y revisiones de mantenimiento, todas las inversiones necesarias para la sustitución o reposición de aquellos elementos que así lo requieran durante la vigencia del contrato, para su entrega en perfecto estado una vez finalizado éste.</p>
<p>Horrenbestez, salbuetsita geratuko lirateke, estalkiak irazgaitz bihurtzeko, belar artifiziala ordezkatzeko eta aldagelak eta egitura azko berritze lan integralak egiteko inbertsioak. Hala behar izanez gero, KUPek bideratuko lituzke lan horiek bere inbertsioen planaren baitan, eta kudeatzailearekin adosturik planifikatuko lituzke lanak, betiere instalazioak gutxien erabiltzen diren sasoian gauzatu beharrekoak. Nolanahi ere den, horrek ez dio kudeatzaileari lanek instalazioan eskaintzen diren zerbitzuetan izan dezaketen eraginaren ordainetan KUPen aldetik kalte-ordinak jasotzea eskubiderik ematen.</p>	<p>Quedarán exentas únicamente por tanto, aquellas inversiones de reformas integrales de estructuras, vestuarios, impermeabilización de cubiertas o de sustitución de la hierba artificial. En su caso serían obras que acometería el PMD, dentro de su plan de inversiones y que planificaría de acuerdo con el gestor en el momento de menor utilización. En cualquier caso, no darían ningún tipo de derecho a indemnización por parte del PMD al gestor por las afecciones a los servicios que se prestan en la instalación.</p>
<p>Dagozkion araudiek exijitutako mantentze lan guztiak eramango dira burura, eta hala behar duenean, baimendutako langileek egingo dituzte lan horiek. Era berean, araudiak finkatutako ikuskaritza lan guztiak egingo dituzte Baimendutako Kontrol lanetarako</p>	<p>Se realizarán todas aquellas operaciones de mantenimiento exigidas por las correspondientes normativas y además deberán ser realizadas por personal autorizado cuando así se exija. Asimismo, se deberán realizar tantas inspecciones por</p>

Erakundeek.	<u>Organismos de Control Autorizados</u> como al normativa establezca.
Belar artifizialaren kasuan ez da hora ordezkatzeko lana aurreikusten, baina egoki mantentzeko zerbitzuek gutxienez honako lan hauek beteko dituzte:	En el caso de la <u>hierba artificial</u> , no está incluida su sustitución, sin embargo, el mantenimiento deberá incluir como mínimo los siguientes servicios:
-Urtean behin ikuskatuko da.	-1 visita anual
-Zelaiaren gainazal osoa garbitu eta orraztuko da.	-Limpieza general y cepillado de la superficie del campo
-Harrotu eta aireztatuko da.	-Descompactación y aireación
-Junturak egiaztu eta, behar izanez gero, kolaz batuko dira.	-Verificación de juntas y encolado puntual si fuera necesarios
-Penaltia jaurtitzeko puntuak egiaztu eta, behar izanez gero, ordezkatu egingo dira.	-Verificación de los puntos de penalti y sustitución de los mismos en caso necesario
-Harearen/kautxuaren ekarpema egingo da.	-Aportación de arena/caucho
-Herbizidak aplikatuko ditu defentsa fitosanitarioetarako bitartekoak ekoizten eta aplikatzen dituzten enpresen erregistro ofizialean inskribatutako enpresa batek.	-Aplicación herbicida por una empresa inscrita en el registro oficial de productores y aplicadores de medios de defensa fitosanitarios.
Estalkiaren kasuan, ez dira aintzat hartzen impermeabilizazioa berritzeko eta isolamendua jartzeko obrak. Hala eta guztiz ere, behin berritze lan horiek egin eta gero, egin beharreko mantentze lanen artean egongo da, eta beharrezkoak diren konponketak egingo dira harten.	En el caso de la <u>cubierta</u> , no estarán incluidas las obras de renovación de la impermeabilización y la implementación de aislamiento. Sin embargo, una vez que dichas renovaciones estén realizadas, estarán incluidos tanto el mantenimiento como las reparaciones necesarias.
9.4. Urte anitzeko Inbertsio plana	9.4. Plan de inversiones plurianual
Elementuak behar duten ordezpenerako inbertsio haietaz gain, Kontratuaren iraunaldia kontuan izanik, kontratua indarrean dagoen bitartean, behean adierazten inbertsioen urte anitzeko plan bat egingo du kudeatzaileak, eta egungo enpresen kalitatezkoak izango dira edo are kalitate handiagokoak, eta gainera KUPen ALDEZ AURREKO oniritzia izango dute:	Además de aquellas inversiones para la sustitución de los elementos que así lo requieran, teniendo en cuenta la duración del contrato, durante la vigencia del mismo se deberá realizar un plan de inversiones plurianual que contemplará las abajo detalladas, de calidad igual o superior a las existentes, y que deberán contar con el visto bueno previo del PMD:
1.- Puioren zelai balioaniztunaren espezifikoak diren ezaugarriengatik, kudeatzaileak inbertitu behar izango du, kontratu hasieran, marrak margotzeko makina bat erosteko, segurtasun egoeran	1.- Por las características específicas del Campo polivalente de Puio, el gestor deberá invertir al inicio del contrato, en la compra de una máquina de pintado de rayas, para garantizar el pintado de aquellas rayas que le


errugbiaren praktikarako falta zaizkion marrak margotzeko.	falten al campo para la práctica del rugby en condiciones de seguridad.
2.-Permetroko sare guztiak aldatuko dira.	2.-Cambio de la totalidad de las redes perimetrales.
3.-Ateetako sareak aldatuko dira.	3.-Cambio de las redes de las porterías
4.-Aldageletako ispiatuak aldatuko dira.	4.-Sustitución de espejos de vestuarios
5.-Hondatuta baldin badaude, aldatu egingo dira metalezko elementuak, esate baterako, atea, hesiak, heldulekuak eta gisakoak.	5.-Sustitución de aquellos elementos de herrería como puertas, vallas, barandillas....que se encuentren deteriorados.
6.-Harmailetako estalkiaren egitura (zutarriak eta habeak) saneatu eta pintatuko da.	6.-Saneado y pintado de la estructura (pilares y vigas) de la cubierta del graderio.
Kontratau indarrean hasten denetik 3 hilabeteko epean urte anitzeko inbertsio plana aurkeztuko du esleipendunak, eta esleipendunak kontratuaren bizitzan zehar zelaian inbertitu beharreko kopuru orokorra islatuko du inbertsio horrek (40.000 euro BEZ barne) 8 urtean , eta egin beharreko inbertsioak, maiztasuna eta bakoitzaren kostu zehatzza emango ditu. Proposamenean inbertsio osagariak proposatu baldin baditu, horiek ere urte anitzeko inbertsio planean jasoko ditu.	En el plazo de tres meses de la entrada en vigor del contrato el adjudicatario deberá presentar el Plan de inversiones plurianual por un importe mínimo de 40.000 € (iva incluido) en los 8 años. En el que detallará las inversiones a realizar, los plazos y los costes. En el caso de plantear inversiones complementarias deberá incluirlas en este mismo plan.
9.5. Instalazio eta elementu guztiak egoera onean edukitzeari dagokionez, indarrean dauden araudi guztiak eta kontratuaren iraunaldian zehar aplikagarri diren guztiak beteko ditu esleipendunak. Besteak beste, norbera babesteko Plan bat, Legionella kontrolpean edukitzeko Plan bat eta hiriko izurriteen kontrola arautzen duen udal Ordenantzak eskatzen duena beteko duen izurriteak kontrolatzeko Plan bat aplikatu edo egingo ditu.	9.5. Deberá cumplir todas las normativas que estén vigentes y que resulten de aplicación durante la vigencia del contrato sobre el mantenimiento de todas las instalaciones y elementos. Entre otros deberá, implantar o elaborar un Plan de autorprotección, un Plan de Autocontrol de Legionella y un Plan de control de plagas que cumpla lo exigido por la Ordenanza municipal reguladora del control de plagas urbanas.
9.6. Lortu beharreko lizenziak edo baimenez gain, instalazioan ezin izango dira obrak edo aldaketak egin aldez aurretik KUPen baimena jaso gabe.	9.6. No se podrán realizar obras ni modificaciones en la instalación sin previa autorización del PMD, sin perjuicio del resto de licencias o permisos que deban obtenerse.
9.7. Kontratuaren finkatutakoaren arabera, esleipendunak jarritako instalazioek, altzariek eta materialek, oro har, eskaini beharreko zerbitzuari eta Administrazioak utzitako	9.7. Las instalaciones, mobiliario y materiales, en general, aportados por el concesionario deberán reunir, de conformidad a lo estipulado en el contrato,


<p>instalazioei dagozkien baldintzak beteko dituzte.</p>	<p>las condiciones correspondientes al servicio que han de prestarse y las instalaciones facilitadas por la Administración.</p>
<p>9.8. Instalazioan sortutako hondakinak gaika bilduko dira, honako frakzioak bereizirik: papera eta kartoia, ontzi hutsak, beira, biohondakina eta errefusa. Frakzio bakoitza dagokion edukiontzian utzik da. Biohondakina nahitaez bildu eta kudeatuko da beste hondakinetik bereizirik. Esleipendunak, taberna kudeatuko duen enpresak edo/eta garbiketa enpresak eskatuko du bosgarren edukiontzia erabili ahal izateko ezinbestekoa den txartela.</p>	<p>9.8. Los residuos generados en la instalación deberán recogerse de forma selectiva, separando las siguientes fracciones: papel y cartón, envases vacíos, vidrio, biorresiduo y resto. Cada fracción se depositará en el contenedor correspondiente a dicha fracción. La recogida y la gestión separada del biorresiduo será obligatoria. El adjudicatario o la empresa que gestione el bar y/o la empresa de limpieza deberá solicitar la tarjeta necesaria para poder utilizar el quinto contenedor.</p>
<p>9.9. Kontrata indarrean hasten denetik 3 hilabeteko epean papera, ontzi hutsak, beira, biohondakina eta errefusa gaika biltzeko zakarrontziak instalatuko ditu esleipendunak. Zakarrontziak elkarren ondoan egongo dira beti, eta frakzio horientzat erabili ohi diren koloreak izango dituzte: urdina, horia, berdea (beira biltzeak uzten baldin bada), marroia eta grisa, hurrenez hurren. Zakarrontzien guneetan badago gune bakoitzean sortzen ez diren frakzioei dagozkien zakarrontzirik ez egotea (esate baterako, zakarrontzi marroia bulegoetan).</p>	<p>9.9. En el plazo de 3 meses desde el inicio del contrato el adjudicatario deberá instalar papeleras para la recogida selectiva de papel, envases vacíos, vidrio, biorresiduo y resto. Las papeleras se colocarán siempre agrupadas, y serán de los colores que se utilizan habitualmente para esas fracciones (azul, amarillo, verde, marrón y gris respectivamente). En cada ubicación, se podrá prescindir de las papeleras correspondientes a las fracciones que no se generen en ese lugar (por ej., de la papelera marrón en las oficinas).</p>
<p>9.10. Hondakin arriskutsuak sortzen dituzten (esate baterako, pintatze lanetan, garbiketetan, herbicida edo biozidak aplikatzeko lanetan eta beste batuetan) mantentze lanez arduratzen diren enpresei exijitu egingo zaizkie hondakin arriskutsu horiek baimendutako kudeatzalle batek kudeatu dituela egiaztatzen duten dokumentuak.</p>	<p>9.10. Se exigirá a las empresas que realicen trabajos de mantenimiento en los que se generen residuos peligrosos (como puede ser el pintado, la limpieza, la aplicación de herbicidas o de biocidas, etc.) los documentos que acrediten que los residuos peligrosos se han gestionado con un gestor autorizado.</p>
<p>9.11. Tabernan ezin izango dira soilik behin erabiltsekoak diren edontzi, plater eta mahai tresnak erabili. Denek behar dute izan garbigarriak eta berrerabilgarriak. Iturriko ura pitxerretan edo edontzietan eskainiko zaie eskatzen dutenei.</p>	<p>9.11. En el bar no podrán utilizarse vasos, platos ni cubiertos de un solo uso. Todos ellos deberán ser lavables y reutilizables. Se deberá ofrecer agua del grifo en jarras o vasos a quien lo desee.</p>
<p>9.12. Tabernan zerbitzatzen diren kafeak eta azukreak Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruzko Europar Parlamentuaren Ebazpenaren (A6-0207/2006) parametroak</p>	<p>9.12. Todo el café y el azúcar que se sirvan en el bar deberán haberse producido cumpliendo los parámetros de la Resolución del Parlamento Europeo sobre Comercio</p>

beteaz ekoitziak behar dute izan. Produktu horiek hornitzaire bati erosi izanaren konpromisoa eta ziurtagiria aurkeztu behar dira.	Justo y Desarrollo (A6-0207/2006). Se deberá presentar el compromiso de compra con un proveedor de estos productos y su certificado.
9.13. I motako ekoetiketa baten baldintzak bete behar dituzte (aingeru urdina edo antzekoa) komunetan eta aldageletan erabiltzen diren komuneko paperek eta idortzeko paperek. Erabiliko diren produktuen fitxa teknikoa aurkeztu beharko da, eta horiek hornitzaire bati erosteko konpromisoa.	9.13. El papel higiénico y el papel de secado que se utilicen en los aseos y vestuarios deberán cumplir los requisitos de alguna ecoetiqueta de tipo I (ángel azul o similar). Se deberá presentar la ficha técnica de los productos que se van a utilizar y el compromiso de compra con un proveedor.
9.14. Instalazioen garbiketan ezin izango dira honakoak erabili:	9.14. En la limpieza de las instalaciones no podrán utilizarse:
-Aire lurroringailuak	-Ambientadores
-Pixalekuetarako pastillak edo substantzia lurrinatuak	-Pastillas o sustancias perfumadas para urinarios
-Spray bidezko produktuak	-Productos en spray
-Garbiketa orokorrerako desinfektatzailaak edo desinfektatzailaak dituzten produktuak (esaterako lixiba), komunetan, dutxetan eta aldageletan erabiltzeko ez bada.	-Desinfectantes o productos con desinfectantes (como la lejía) para la limpieza general, excepto en los aseos, duchas y vestuarios.
10. INVENTARIOA	10. INVENTARIO
Instalazioaren ustiakuntzaren kontuen kargura erositako ondasun suntsikorrik, inventarioan jaso daitezkeen ondasunak, udal jabetzakoak izango dira. Era berean, kudeatzailaak bere kontura egiten dituen obrak eta instalazioak, instalazioari atxikita geratuko dira, eta kontrataua amaitutakoan denak batera hartuta itzuliko ditu.	Los bienes inventariables o fungibles adquiridos con cargo a las cuentas de explotación de la instalación serán de propiedad municipal. Asimismo las obras e instalaciones que realice el gestor a su costa quedarán adscritas a la instalación y revertirán con el conjunto de la misma, en el momento de finalización del contrato.
Elkarte emakidadunak nahitaez edukiko du eguneratuta dokumentu honen 1. eranskinean atxikita doan instalazioaren deskribapen Fitxa.	La entidad concesionaria está obligada a mantener actualizada la Ficha descriptiva de la instalación que se adjunta en el anexo 1 del presente documento.
11. USTIAKUNTZAREN KONTUA-MEMORIA	11. CUENTA DE EXPLOTACIÓN-MEMORIA
11.1. Kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean, honako	11.1. En el plazo de tres meses desde la firma del contrato, el adjudicatario deberá tener a

dokumentazio hau izango du esleipendunak KUPen eskura ikuskaritza lanak bete ditzan:	disposición del PMD para su inspección la siguiente documentación:
• Urte anitzeko Inbesrtsio plana	• El plan de inversiones plurianual
• Urteko mantencionmendu plana	• El plan de mantenimiento anual
• Legionella kontrolpean edukitzeko plána.	• El plan de autocontrol de la Legionella.
• Izurriteak kontrolatzeko plana.	• El plan de control de plagas.
• Laneko arriskuei aurrea hartzeko plana.	• Plan de prevención de riesgos laborales.
11.2. Urte bakoitzeko irailean , azken kontuen berri izatean, iragandako ekitaldiko ustiakuntzari buruzko Memoria aurkeztuko du esleipendunak, eta honako hauek jasoko ditu aipatu memorian:	11.2. El adjudicatario habrá de presentar en septiembre de cada año , y una vez conocidas las cuentas finales, la Memoria sobre la explotación del ejercicio transcurrido, y que incluirá:
11.2.1. Ekonomiaren esparruan:	11.2.1. Ámbito económico:
• Diru sarreren eta gastuen arteko balantzea (iraila-abuztua), KUPek emandako ereduari jarraiki.	• Balance de ingresos y gastos (septiembre-agosto), según plantilla aportada por el PMD.
• Sarreren xehetasunak partida, entrenamenduen arabera...	• Detalle de los ingresos por los partidos, entrenamientos...
• Elkartea kudeatzailearen eta tabernaren zuzeneko kudeatzailearen arteko kontratuaren kopia.	• Copia del contrato entre la entidad gestora y el gestor directo del bar.
• Langileen kontratuak: zerbitzuak elkartea kudeatzailearen kontura eman dituzten langileekin sinatutako lan kontratuaren kopia.	• Contratos de personal: copia de los contratos laborales con los trabajadores dedicados a la prestación del servicio a cuenta de la entidad gestora.
• Erantzukizun zibilaren aseguruaren polizaren eta kontratutako gainerako bermeen kopia eta aseguruaren ordainketa eguneratuaren kopia.	• Copia de la póliza del seguro de responsabilidad civil y demás garantías contratadas y copia del abono actualizado del seguro.
• Egindako inbertsioen memoria eta fakturak.	• Memoria y facturas de inversiones realizadas.
• Argiaren, uraren, gasaren eta beste batzuen hornidurari dagozkion fakturen kopia.	• Copia de las facturas de suministros de luz, agua, gas y otros..
• Komuneko paperaren, idortzeko paperaren eta garbiketa produktuen hornidurari dagozkion fakturen kopia.	• Copia de las facturas de suministro de papel higiénico, papel de secado y productos de limpieza.

<ul style="list-style-type: none"> Tabernako kafearen eta azukrearen hornidurari dagozkion fakturen kopiatu. Mantenimendu kontratuei dagozkion fakturen kopiatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Copia de las facturas de los suministros de café y azúcar del bar. Copia de las facturas de los contratos de mantenimiento.
Mantentze lanen esparruan:	11.2.2. Ámbito de mantenimiento
1. Espazio eta instalazio guztien mantentze, garbiketa eta kontrol liburua. Zehaztu beharrekoak: Burura eramandako lanak:	1. Libro de mantenimiento, limpieza y control de todos los espacios y las instalaciones, detallando las operaciones realizadas:
<ul style="list-style-type: none"> Instalazioen nahitaezko ikuskaritzari dagozkion ziurtagiriak. Behe Tentsioa, galdrak eta instalazio termikoa, igogailuak...) 	<ul style="list-style-type: none"> Certificados de inspección obligatoria de instalaciones: Baja Tensión, calderas e instalación térmica, elevadores...)
<ul style="list-style-type: none"> Bizitza-lerroen urteko ikuskaritza. 	<ul style="list-style-type: none"> Revisión anual de líneas de vida.
<ul style="list-style-type: none"> Desfibrilagailuen urteko ikuskaritza. 	<ul style="list-style-type: none"> Revisión anual de desfibriladores.
<ul style="list-style-type: none"> Laneko arriskuei aurrea hartzeko planaren ezartzen diren ekintzak burura eraman, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera. 	<ul style="list-style-type: none"> Ejecución del plan de prevención de riesgos laborales, de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente
<ul style="list-style-type: none"> Legionella kontrolpean edukitzeko planaren araberako ekintzak burura eraman direla egiaztatzen duen ziurtagiria. 	<ul style="list-style-type: none"> Certificado de haber realizado las acciones del plan de autocontrol de legionella.
<ul style="list-style-type: none"> Izurriteak kontrolpean edukitzeko planaren araberako ekintzak burura eraman direla egiaztatzen duen ziurtagiria. 	<ul style="list-style-type: none"> Certificado de haber realizado las acciones del plan de control de plagas.
<ul style="list-style-type: none"> Instalazioa mantentzeko lanetan sortutako hondakin arriskutsuen kudeaketari (empresa esleipendunak edo azpikontrataturiko enpresak burututako kudeaketa) dagokion dokumentazioaren kopiatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Copia de la documentación correspondiente a la gestión de los residuos peligrosos generados en el mantenimiento de la instalación (por la empresa adjudicataria o por las empresas subcontratadas).
2. Mantentzeko lanen kontratuak eta egindako ordainketa eguneratuen kopiatu:	2. Copia de los contratos de mantenimiento y de los abonos actualizados de:
<ul style="list-style-type: none"> - Belarraren mantenua, erregistratutako enpresaren bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> - Mantenimiento de la hierba, mediante empresa registrada.
<ul style="list-style-type: none"> - Ekipo elektrogenoaren mantenua. Mantentze lanak hilero egingo dira, eta urtean behin egiazatzeko eta abian jartzeko lanak egingo dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Mantenimiento de las instalaciones térmicas, eléctricas y del grupo electrógeno, donde se deberán realizar labores de mantenimiento mensual, y anual de comprobación y puesta en marcha.

<ul style="list-style-type: none"> - Legionellari aurrea hartzeko enpresa baimenduarekin edo xede horretarako beharrezkoan den prestakuntza duten langileekin egindako kontratua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Prevención de legionela por empresa autorizada o por personal con la formación necesaria para ello.
<ul style="list-style-type: none"> - Igogailuen mantenua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Mantenimiento de elevadores.
<ul style="list-style-type: none"> - Suak itzaltzeko bitartekoak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Medios de extinción de incendios
11.2.3. Kirolaren esparruan	11.2.3. Ámbito deportivo
<ul style="list-style-type: none"> • Okupazioaren ordutegiaren koadroa (taldeen sexua eta kategoria zehatztuz) 	<ul style="list-style-type: none"> • Cuadro horario de la ocupación (marcando sexo y categoría de los equipos)
<ul style="list-style-type: none"> • Programatutako dinamizazio jarduerak (txapelketak, eskolak...) 	<ul style="list-style-type: none"> • Actividades de dinamización programadas (torneos, escuelas...)
11.3. Elkarte kudeatzaileak bere gain hartuko du Donostia Kirolako zerbitzu teknikoek deitutako bileretara, emakidaren gaineko jarraipenerako bileretara, agertzeko konpromisoa.	11.3. La entidad gestora se compromete a asistir a las reuniones de seguimiento de la concesión que se convoquen por parte de los servicios técnicos de Donostia Kirola.
Donostia / San Sebastián, 2015eko maiatzaren 8a,	
 Iñaki Zabaleta Munduate Kirol Ihardueren Dpto. arduraduna	



Donostia kirola
 SAN SEBASTIÁN

